Bilbao

2021eko azaroaren 3tik 5era.
Del 3 al 5 de noviembre de 2021.



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

LEKUALDATZEAK ETA IGAROTZEAK
DESPLAZAMIENTOS Y TRÁNSITOS



# GIZARTE INKLUSIOARI ETA ARTE ESZENIKOEN HEZKUNTZARI BURUZKO XIII. JARDUNALDIAK



# XIII JORNADAS SOBRE INCLUSIÓN SOCIAL Y EDUCACIÓN EN LAS ARTES ESCÉNICAS



GOBIERNO DE ESPAÑA · MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE · inaem INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA
AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO
La Red española de Teatros, Auditorios, Circuitos y Festivales de titularidad pública
Junta de Andalucía · Consejería de Cultura y Patrimonio Histórico · AGENCIA ANDALUZA DE INSTITUCIONES CULTURALES
Ayuntamiento de Murcia



**Gizarteratzeari eta Arte Eszenikoen Hezkuntzari buruzko XIII.** Jardunaldiak 2021ean egingo dira **Azkuna Zentroa-Bilboko Alondegian, azaroaren 3tik 5era**.

Edizio honen lema bi kontzepturen inguruan egituratzen da: **joan-etorriak eta igarotzeak**. Horiek arreta jarriko dute ikuspegi barneratzailea duten arte-prozesuen inpaktuetan, proiektu horiek zabaltzen dituzten hainbat erresonantziatan, lantzen dituzten artistentzat, parte hartzen duten pertsona eta taldeentzat edo horiek sustatzen dituzten erakundeentzat.

Testuinguru hibridoen alde egingo da, aberastasuna aniztasunarekin indartzen den elkarguneetan kokatzen diren proiektuen alde, eta hizkuntza artistikoen eta pertsonen eta kolektiboen arteko kutsaduraren alde.

Aniztasun artistiko eta sozial hori **Azkuna Zentroa - Bilboko Alondegia** kultur gunearen ezaugarri bat da, eta bertan egingo da Jardunaldien edizio berri hau.

Bestalde, herritarrek arteetan parte-hartzea giza eskubide bat gehiago dela uste dugu eta ideia hori indartuko dugu, baita gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsona eta taldeentzat ere; horregatik, hori suspertzeko eta errazteko erantzukizuna dutenek sustatu behar dute. Horrek zehazten ditu jardunaldiak antolatzen dituzten erakundeak: **Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala (INAEM), Azkuna Zentroa - Bilboko Alondegia, Murtziako Udala, Andaluziako Juntaren Kultura Erakundeen Andaluziako Agentzia eta Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdi publikoen Espainiako Sarea.**

# Asteazkena, azaroak 3

| | |
|---|---|
| **10:00 h.** | **AKREDITAZIO-MAHAIA IREKITZEA** |
| **18:00 h.** | **PERFORMANCE-EKINTZA *A-TIK Z-RA (DE LA A A LA Z)*<br>LOS BÁRBAROS-EN ESKUTIK**<br>Azkuna Zentroko hainbat kokaleku<br>Aurkezlea: Fernando Pérez (Azkuna Zentroa Bilbao) |
| **19:30 h.** | **XIII. JARDUNALDIEN INAUGURAZIO OFIZIALA**<br>Parte hartzaileak: batzorde antolatzailea eta agintariak<br>Azkuna Zentroa<br>Streaming bidezko emanaldia |
| **20:00 h.** | **IKUSKIZUNA: *SUITE TOC NÚMERO 6*<br>LES IMPUXIBLES-EN ESKUTIK**<br>Ikuskizuna, hitzaldia eta ondorengo topaketa jendearekin<br>Auditorioa – Azkuna Zentroa<br>Aurkezlea eta moderatzailea: Marta Monfort (Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sarea) |

# Osteguna, azaroak 4

| | |
|---|---|
| **9:00 h.** | **AKREDITAZIO-MAHAIA IREKITZEA**<br>Azkuna Zentroa - Bilboko Alondegia |
| **10:00 h.** | **ARTE PIXKA BAT I (UNA PIZCA DE ARTE I)**<br>Streaming bidezko emanaldia |
| **10:10 h.** | ***ANTZERKIA BIZIPEN-, GIZA-ALDERDITIK ETA ALDERDI POLITIKOTIK, EL SALVADORREN, ERDIALDEKO AMERIKAN EGINA (TEATRO DESDE LO VIVENCIAL, SOCIAL Y POLÍTICO, HECHO EN EL SALVADOR, CENTRO AMÉRICA)***<br>**Egly Larreynaga.** Teatro del Azoro-ren eta La Cachada Teatro-ren sortzailea<br>Hitzaldia, galderak eta ondorengo eztabaida jendearekin<br>Streaming bidezko emanaldia |
| **11:40 h.** | **ARTE PIXKA BAT II (UNA PIZCA DE ARTE II)**<br>Streaming bidezko emanaldia |
| **11:50 h.** | **ETENALDIA** |
| **12:30 h.** | **ELKARRIZKETA: *IGAROTZEAK (TRÁNSITOS)***<br>**María Oliver.** OVI Barcelona-ko kidea, DIVERSORIUM proiektuko komitentea<br>**Maylis Arrabit.** Indartsu jarri beharko dugu (Habrá que ponerse cachas) lanaren zuzendari artistikoa<br>**Rubén Alonso.** Antropoloops<br>Elkarrizketa, galderak eta ondorengo eztabaida jendearekin<br>Azkuna Zentroa Auditorioa - Bilboko Alondegia<br>Streaming bidezko emanaldia |
| **13:30 h.** | **ARTE PIXKA BAT III (UNA PIZCA DE ARTE III)**<br>Streaming bidezko emanaldi |

# Osteguna, azaroak 4

**13:40 h.**

**ARRATSALDEKO JARDUEREN INFORMAZIO TEKNIKOA**
Azkuna Zentroa Auditorioa - Bilboko Alondegia

**13:50 h.**

**ETENALDIA**

**16:30 h.**

**TAILERRAK**
Azkuna Zentroko hainbat gune – Bilboko Alondegia
*NIRE NI-TIK HITZ EGITEN, BESTEAZ HITZ EGITEKO (HABLANDO DESDE MI YO, PARA HABLAR DEL OTRO/A)*, Egly Larreynagaren eskutik
*ZIRKUTIK HURBIL (PROXIMIDAD AL CIRCO*), MUReko Jordi Masen eta David Candelichen eskutik (Camaleònica produccions)
*BAKARRIK EZ EGOTEKO MODUAK (MANERAS DE NO ESTAR SOLOS)*, Los Bárbaros-eko Javier Hernandoren eta Miguel Rojoren eskutik
*FORMA BILATZEN, NARRATIBAK GORPUTZETAN ETA ESPAZIOAN AURKITZEN (BUSCANDO LA FORMA, ENCONTRANDO NARRATIVAS EN LOS CUERPOS Y EN EL ESPACIO)*, HQPC proiektu kolektiboko Maylis Arrabit-en, Ebi Soria Corón-en eta Xabier Madina Manterolaren eskutik
*DANÇANDO COM A DIFERENÇA: ZER DAGO HORIZONTETIK HARATAGO? (¿QUÉ HAY MÁS ALLÁ DEL HORIZONTE?)*, Henrique Amoedo-ren eskutik
*MUSIKA-NAHASKETA TOPALEKU (LA REMEZCLA MUSICAL COMO ESPACIO DE ENCUENTRO)*, Antropoloops-eko Rubén Alonsoren eskutik

**20:00 h.**

**IKUSKIZUNAK**
*INDARTSU JARRI BEHARKO DUGU (HABRÁ QUE PONERSE CACHAS)*, HQPC proiektu kolektiboaren eskutik
*HURBILTASUNETIK (DE TÚ A TÚ!)*, MUR kolektiboaren eskutik
Ikuskizunak eta ondorengo topaketa jendearekin
Lantegia Aretoa, Azkuna Zentroa Auditorioa - Bilboko Alondegia

## Ostirala, azaroak 5

| | |
|---|---|
| **9:00 h.** | **AKREDITAZIO-MAHAIA IREKITZEA**<br>Azkuna Zentroa - Bilboko Alondegia |
| **9:30 h.** | **ARTE PIXKA BAT IV (UNA PIZCA DE ARTE IV)**<br>Streaming bidezko emanaldia |
| **9:45 h.** | **XIII. JARDUNALDIEN JAKINARAZPENAK**<br>8 proiekturen aurkezpena eta ondoren publikoarekin eztabaida<br>Azkuna Zentroa Auditorioa – Bilboko Alondegia<br>Streaming bidezko emanaldia<br>Parte-hartze mistoa: zuzenean Azkuna Auditoriotik eta online |
| **12:00 h.** | **ETENALDIA** |
| **12:30 h.** | **ARTE PIXKA BAT V (UNA PIZCA DE ARTE V)**<br>Streaming bidezko emanaldia |
| **12:45 h.** | **TXOSTENA:** ***ULTRAPERIFERIATIK ZENTRORANTZ (DE LA ULTRAPERIFERIA HACIA EL CENTRO) - DANÇANDO COM A DIFERENÇA EM MOVIMENTO***<br>**Henrique Amoedo-ren eskutik.** Dançando com a diferença-ko zuzendari artistikoa<br>Hitzaldia eta ondorengo eztabaida jendearekin<br>Azkuna Zentroa Auditorioa - Bilboko Alondegia<br>Streaming bidezko emanaldia |
| **14:15 h.** | **ARTE PIXKA BAT VI (UNA PIZCA DE ARTE VI)**<br>Streaming bidezko emanaldia |
| **14:25 h.** | **XIII. JARDUNALDIEN ITXIERA OFIZIALA**<br>Azkuna Zentroa - Bilboko Alondegia<br>Streaming bidezko emanaldia |

18:00 - 19:00 h.

# PERFORMANCE-EKINTZA: *DE LA A A LA Z*. LOS BÁRBAROS

Azkuna Zentroko hainbat kokaleku

## A-TIK Z-RA (DE LA A A LA Z)

**Arte-egoitza**

Atik Zra (De la A a la Z) deriba bat da, eta denbora-makina bat Azkuna Zentroan. Eta ikusten ez diren gauzak ikusteko gida bat. Halaber, hiztegi arraro bat da, begiratoki bat eta etxeko egongelako sofa.

Ideia eta sorkuntza: Los Bárbaros (Javier Hernando eta Miguel Rojo).

## LOS BÁRBAROS

Los Bárbaros Javier Hernandoren eta Miguel Rojoren proiektua da, non identitate garaikidearen, boterearen eta erlazionatzeko moduen inguruko kontzeptuak lantzen diren, errealitatearen eta fikzioaren artean lan eginez. Lan-corpus bat sortu dute, non gai bera lantzen baita eszenatik, instalaziotik edo literaturatik. Irudimenarekin jolasten dute. Bere proposamenak egunerokotasunetik eta sinpleenetik ustekabekoaren harridurara doaz, zintzotasunez eta umorez. Mundu garaikideari buruz pentsatzeko topaguneak eta hausnarketa-guneak sortzen saiatzen dira.

www.losbarbaros.es



20:00 - 21:30 h.

# IKUSKIZUNA: *SUITE TOC NÚMERO 6*. LES IMPUXIBLES

Ikuskizuna, hitzaldia eta ondorengo topaketa jendearekin
Auditorioa – Azkuna Zentroa
Aurkezlea eta moderatzailea: Marta Monfort (Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sarea)

## *SUITE TOC NÚMERO 6*

Zein dira gizarte osasuntsu baterako parametroak? Gure gizartean estalitako gai bati argia emateko kontzertu bat, ikuskizun bat, mugako gune bat: TOCaren (nahasmendu obsesibo-konpultsiboa) sintomatologia. Nagusi diren begiraden hegemoniaren aurkako diskurtso ofizialen inguruko hurbilketa.

## LES IMPUXIBLES



Les Impuxibles piano-jole baten eta dantzari baten arteko fusioa da. Bategite horrek bakoitzaren kalitate artistikoaren potentzia eta batzen dituen loturaren harmonia biltzen ditu. Clara eta Ariadna Peya ahizpek, sortzaileek eta interpreteek osatzen dute Les Impuxibles. Hizkuntzen nahasketa lantzen dute. Musika eta mugimendua beste diziplina eszenikoekin bat egiten dituen ikerketa. Ikerketa ez da amaitu, eta hizkuntza propioa eraikitzera eraman ditu. Horregatik, sortzaileen eta unibertsoen arteko lankidetzaren eta aliantzen alde egiten jarraitzen dute, sorkuntza-modu berriak aurkitzeko eta beren lanetik haratago eramateko. Salaketarako eta gizarte-aldaketarako bozgorailu gisa artea erabiltzeko beharra gizartearen konpromisoak areagotu egin duelarik, berdintasun-politikaren alde egiten dute.

http://lesimpuxibles.com

# Ficha Artística

**Ikuskizuna:** *SUITE TOC NÚMERO 6*
**Generoa:** Antzerkia, musika eta dantza
**Publikoa:** 12 urtetik aurrera
**Hizkuntza:** katalana/gaztelania (azpitituluak gaztelaniaz eta/edo ingelesez). Zeinu-hizkuntzara egokitua
**Iraupena:** 80 minutu
**Autoretza:** Les Impuxibles, Judith Pujol eta María Velasco
**Zuzendaritza:** Ariadna Peya eta Clara Peya
**Konposizio eta interpretazio musikala:** Clara Peya
**Koreografia:** Ariadna Peya
**Testua:** María Velasco
**Itzulpena:** Judith Pujol
**Interpreteak:** Clara Peya, Ariadna Peya, Pau Vinyals, Èlia Farrero eta Adrià Viñas
**Aholkularitza artistikoa:** Judith Pujol
**Eszenografia:** Judit Colomer Mascaró
**Eszenografiako laguntzailea:** Idoia Costa
**Argiztapenaren diseinua:** Jordi Berch
**Jantziak:** Marc Udina
**Soinuaren eta nahasteen diseinua:** Carles Bernal
**Argazkia:** Sílvia Poch
**Komunikazioa:** COSMICA (Sònia González eta Anna Aurich)
**Zuzendaritzako laguntzailea:** David Teixidó
**Zuzendaritzako laguntza:** Maria Roig
**Mugimendu-aholkularitza:** Olga Lladó
**Edukiaren aholkularitza:** Xavier Cela Bertran
**Zeinu-hizkuntza katalanaren aholkularitza:** Berta Frigola
**Ekoizpen exekutiboa:** Gràcia Camps Miró
**Banaketa:** Mireia Gràcia Bell-lloch

**Esker onak:** Manel Carrasco Buxeda, Vicenç Colomer, Anika Ber, Aleix Fau-ró, Laura Vila Kremer, Wanja Kahlert, Maria González, L'endoll i Marta Mariñas.

**Eskerrak teklatuengatik:** Montse Basart, Carles Bernal, Gràcia Camps, Carme Canet, Agnés Farnarier, Pol Galofre, Ariadna Giaccilevitch, Edgar Gómez, Isis Martín, Roger Moré, Anna Piferrer i Isabel Vinardell.

Les Impuxibles-en produkzioa, Beckett aretoaren eta ICECen laguntzarekin.
Contracorrent-en eta Dance esCool-en laguntzarekin.
Joel eta Manuelen omenez.

10:00 - 10:10 h.

## *ARTE PIXKA BAT I*

Streaming bidezko emanaldia

10:10 - 11:40 h.

## TXOSTENA:
## *ANTZERKIA BIZIPEN-, GIZA-ALDERDITIK ETA ALDERDI POLITIKOTIK, EL SALVADORREN, ERDIALDEKO AMERIKAN EGINA*

**EGLY LARREYNAGA** (El Salvador)
Aurkezlea eta Moderatzailea: Isabel Pérez (Andaluziako Kultura Instituzioen Agentzia. Andaluziako Juntaren)
Hitzaldia, galderak eta ondorengo eztabaida jendearekin
Streaming bidezko emanaldia



**EGLY LARREYNAGA PACAS**
Aktorea, zuzendaria, dramagilea eta kultur kudeatzailea. Teatro del Azoro-ren eta La Cachada Teatroaren sortzailea da, bai eta Asociación Cultural Azoro ACA Elkartearen sortzailea ere. 10 urtean, gaur egungo fenomeno sozialei buruzko 11 antzerki-lan egin ditu Latinoamerikan, AEBn eta Espainian. 2018an, Europar Batasunaren domina lortu zuen antzerkiaren bidez egindako gizarte-lanagatik. Bere prozesu metodologikoa “Cacahada the Oportunity” dokumentalean dago jasota. Houston-eko (Texas) Southwest Film Festival jaialdian estreinatu zen. Ondoren, filmak hainbat sari irabazi zituen eta Latinoamerikan, Europan, Japonian eta Nepalen aurkeztu zen. Egly Larreynagak beste pertsona batzuen istorioak eraikitzen ditu, gerra eta erresilientzia ezaugarri dituen esperientzia pertsonaletik abiatuta. Horiek material eszeniko bihurtzen dira, eta indarkeriak eta gizarte-ehunaren zatiketak definitutako gizarte bati buruzko hausnarketarako eta elkarrizketarako gunea sortzen da.

11:40 - 11:50 h.

## *ARTE PIXKA BAT II*

Streaming bidezko emanaldia

12:30 - 13:30 h.

## ELKARRIZKETA: *IGAROTZEAK*

Aurkezlea eta moderatzailea: Eva García (Arte-zuzendaria)
Esku hartu:
. María Oliver (Proyecto Concomitentes)
. Maylis Arrabit (Habrá Que Ponerse Cachas)
. Rubén Alonso (Talleres Antropoloops)
Elkarrizketa, galderak eta ondorengo eztabaida jendearekin
Azkuna Zentroa Auditorioa - Bilboko Alondegia
Streaming bidezko emanaldia

Gure gonbidatuen eta haien kolektiboen ordezkari gisa (Proyecto Concomitentes-eko María Oliver, Indartsu jarri beharko dugu (Habrá que ponerse cachas) laneko Maylis Arrabit, eta Antropoloops-eko Rubén Alonso), elkarrizketa bat sortuko da praktika artistikoen, horietan parte hartzen duten aktoreen eta horiek garatzen diren testuinguruen arteko topaketan izaten diren joan-etorrien inguruan.

## MARÍA OLIVER (Proyecto Concomitentes)



Miembro de OVI Barcelona (https://ovibcn.org/) y Comitente del Proyecto DI-VERSORIUM OVI Barcelona-ko (https://ovibcn.org/) kidea eta Fundación Carasso (https://www.fondationcarasso.org/es/) fundazioko DIVERSORIUM proiektuko komitentea (https://concomitentes.org/concomitancias/diversorium). Maria Oliver doktorea da frantses filologian, unibertsitateko irakasle ohia, itzultzailea eta poeta esporadikoa. Duela 12 urte, bizitzak, bere ziurgabetasunak aniztasun funtzionala ekarri zion, eta ispiluaren beste aldea ezagutzeko aukera izan zuen, non diskriminazioa eta eskubide-falta legea diren. Bartzelonako Bizimodu Independentearen Bulegoko kidea da. Aniztasun funtzionalarekin zerikusia duten ikus-entzunezko kultura-proiektuetan parte hartu du, hala nola “Trèvols de 4 fulles”, “Vivir y otras ficciones” eta Liant la Troca dantza-konpainia integratuko kide izan zen (2012tik 2018ra). Hainbat ikuskizunetan parte hartu zuen, baita dantza-antzerki tailerretan ere, estatuko eta nazioarteko koreografoekin.

## MAYLIS ARRABIT (Indartsu jarri beharko dugu, Habrá que ponerse cachas)



Indartsu jarri beharko dugu (Habrá que ponerse cachas) lanaren zuzendari artistikoa

Maylis dantza-artista da eta ezgaitasuna dauka. Lehen dantza eskola 2011n hartu zuen AXIS dance company-rekin. Nagusiki dantza garaikidean eta contact inprobisazioan trebatu da. Adam Benjamin, Jordi Cortés eta batez ere Stopgap Dance Co-rekin tailerretan aritu da, praktika barneratzaileko ezagutzak aberastuz. 2016. urtean, Maylisek karrera dantzara bideratu zuen, eta Indartsu jarri beharko dugu (Habrá que ponerse cachas) lanari ekin zion. Orobat, Frantzian hainbat proiektutarako dantzan aritu da. Gaur egun bi proiektu berritan ari da lanean, bata herri mailan eta bestea nazioartean, koreografo eta dantzari gisa.

## RUBÉN ALONSO (Antropoloops)



Musikari autodidakta, doktorea, arkitektoa eta gizarte zientzietako eta esku-hartze sozialeko master ofiziala. Sorkuntza-prozesuak irekitzeko interesak eta gizarte-bokazioko diziplina anitzeko hurbilketak zuzentzen dute bere ibilbide profesionala. 2000n hasi zen arkitekturan, etxebizitzari buruzko lanean eta lapanaderia estudioan parte-hartzen hasi zenean; azken hamarkadan, musikaren bidez, Antropoloops arte-proiektuan aritu da, non musikaren nahasketak eta datuen bistaratzeak ikerketarako, ikaskuntzarako eta jolaserako gune bat irekitzen duten. Antropoloops eta haren hezkuntza-alderdia hainbat testuingurutan aurkeztu dira Europan eta Amerikan.

**13:30 - 13:40 h.** ***ARTE PIXKA BAT III***

Streaming bidezko emanaldia

# 16:30 - 18:30 h. TAILERRAK

Azkuna Zentroko hainbat gune – Bilboko Alondegia

## TAILERRA: *NIRE NI-TIK HITZ EGITEN, BESTEAZ HITZ EGITEKO*

### Egly Larreynagaren eskutik (berrikusia)

Teatro del Azoro konpainiak landa-ikerketa, muntaketa eta eszenaratzea egiten dituen lanean oinarritutako antzerki-ariketa batzuen bidez, tailerreko parte-hartzaileekin batera espazio bat jarriko da martxan, beren istorioak eraiki eta eszena posibleen zirriborroa egiteko.

## *ZIRKUTIK HURBIL*

### Camaleònica Producciones

Jordi Masek eta David Candelichek emango dute zirkuko hastapenari buruzko tailer hori; bertan zirkuko-teknikak, malabareak eta bizikleta akrobatikoa erakutsiko dira.

Bizikleta bikoitza David Candelichen asmakizuna da. “Hurbiltasunetik” (De tú a tú) ikuskizunean erabiltzen du Manolo Osoriorekin, binomioan bizikleta akrobatikoaren ikuskizuna egiteko. Era berean, ematen duen egonkortasunari esker, elementu didaktikoa da, bizikleta akrobatikoarekin praktikatzen hasteko aproposa, maila eta gaitasun guztietatik abiatuta.

Malabarismoaren tailerrean, berriz, parte-hartzaileen psikomotrizitatea garatu nahi da, hainbat objektutatik abiatuta, hala nola pilotak, mazoak, txinatar platerak, zeta-zapiak eta banakako, bikoteko edo taldeko joko dinamiko eta dibertigarriak.

Jende guztiarentzako tailer egokia da, ondo pasa eta zirkura hurbildu nahi dutenentzat zuzendua.

## *BAKARRIK EZ EGOTEKO MODUAK*

### Los Bárbaros

Urteetan zehar, Los Bárbaros-ek antzerkiari eta parte-hartzeari buruzko ideia batzuk garatu ditu. Modu praktikoan, nola lan egiten duten, zer pieza gustatzen zaizkien, zergatik beste batzuk gutxiago gustatzen zaizkien, eta pieza bat sortzean zeri jartzen dioten arreta berezia azalduko dute tailer honetan. Hainbat kontzeptu jorratuko dira, hala nola erabiltzen duten antzerki-izaera, fikzioa, errealitatea, memoria, boterea, kontaketa edo utopia.

# *FORMA BILATZEN, NARRATIBAK GORPUTZETAN ETA ESPAZIOAN AURKITZEN*

## Indartsu jarri beharko dugu (Habrá que Ponerse Cachas) proiektu kolektiboa

Maylis Arrabitek, Ebi Soria Corónek eta Xabier Madina Manterolak emango dute.

Tailer hau hasteko bakarkako aurkezpen labur bat egingo da, parte-hartzaileen irisgarritasun-beharrak ezagutu eta baloratzeko.

Ondoren, berotu egingo da gorputzen kontzientzia hartzeko, norberaren berezitasunak ezagutzeko, parte-hartzaile bakoitzaren beharrak ulertzeko eta, hartara, jolasteko eta esploratzeko prest dagoen gorputza prestatzeko.

Beroketaren ondoren, banakako espazioa zein kolektiboa esploratzea proposatuko da, HQPC kolektiboan garatu dituzten tresna batzuk eta inprobisazio, sorkuntza eta berehalako konposizioko beste joko barneratzaile batzuk erabiliz, bakarka nahiz taldeka lan eginez.

Amaitzeko, elkarrizketa-zirkulu bat irekiko da, tailerraren ondoren iritziei buruz hitz egiteko eta eztabaidatzeko.

# *DANÇANDO COM A DIFERENÇA: ZER DAGO HORIZONTETIK HARATAGO?*

## Henrique Amoedo

Companhia Dançando com a Diferença (Diferentziarekin dantzan konpainia) nazioartean ezaguna da antzokietara eramaten dituen ikuskizunengatik. Ezgaitasuna duten eta ez duten dantzariak biltzen ditu, eta koreografo garaikide garrantzitsuenek zuzendutako sorkuntzak aurkezten ditu.

Horizonte eszenikotik haratago, bada errealitate ikusezin baina oso garrantzitsua, Henrique Amoedok zuzendutako Dantza Integratzailearen Konpainia honen lan-prozesu osoan.

Tailer honen helburua da, Amoedoren lan-metodologia eta -filosofiaren bidez, antzeztokiaren atzean ur-jauzi efektuak (uhindura efektua) eragiten dien guztien banakako hazkundeari laguntzen dion prozesu sakona ezagutaraztea: haren ekintzek dantzarien, familiaren, lagunen eta, azkenik, inguruko gizarte-ingurunearen aldaketa zeharkatzen dute.

Norbere estimuarekin, autonomiarekin eta irudikapenarekin guztia hasiko da: ezagutuko ditugu eta antzeztokitik haratago horizonterantz aurrera egingo dugu.

## *MUSIKA-NAHASKETA TOPALEKU*

### Rubén Alonso

Rubén Alonsok emango du. Antropoloops-ek kultura-aniztasunera sormenez eta hezkuntzaz egiten duen hurbilketa partekatuko da tailerrean, musika- eta soinu-nahasketan oinarrituta.

Topaketaren gaiak ardatz hartuta, guztion artean gailu bat eraikiko dugu, musika espazioan, gorputzean eta gure istorioetan kokatuta.

**20:00 - 21:30 h.**

## IKUSKIZUNAK: *HABRÁ QUE PONERSE CACHAS* PROIEKTU KOLEKTIBOAREN ESKUTIK ETA *DE TÚ A TÚ!* MUR KOLEKTIBOAREN ESKUTIK

Lantegia Aretoa, Azkuna Zentroa Auditorioa - Bilboko Alondegia
Ikuskizunak eta ondorengo topaketa jendearekin

## IKUSKIZUNAK: *INDARTSU JARRI BEHARKO DUGU*

### HQPC proiektu kolektiboaren eskutik



Indartsu jarri beharko dugu (Habrá que ponerse cachas) jokoa esanahi, txantxa, xarma eta asmamen handiz beterik dago. Bob Dylanen kanta bat. “The Royal Tenenbaums” filmean entzuten dena. Filmaren familia eta bi anaien paperak. Nola aldatzen diren anai-arreben arteko harremanak denborarekin, nola aldatzen diren anai-arreben arteko harremanak haurtzaroan, nerabezaroan eta helduaroan, eta, zer gertatzen da haurrek gurasoen ordez erabakiak hartu behar dituztenean?, Zerk hurbiltzen gaitu gure anaiarengana?, Zerk bereizten gaitu?, Zer neurritan da gure familia gure nortasunaren parte, eta batzuetan urrundu egiten gaitu?

Horrekin guztiarekin eta horri guztiari buruz pentsatzen dutenarekin, dantzariek truke oparoa eragiten dute. Beren ametsezko ideiak mugimendu-ospakizun bihurtzen dira.

# Ebi Soria

Dantzaria, musikaria, konpositorea, performer somatikoa, Donostiako Musika eta Dantza Eskolan eta Bartzelonako musika tailerrean prestatu zen. Idoia Zabaleta, Espe Lopez, Oscar Gomez, Ana Valles, Lisa Nelson, Jordi Cortés, Joao Fiadeiro, Iñaki Salvador eta Patri Goialderekin osatu zuen bere prestakuntza, besteak beste. Bere ibilbidea musikan hasi zen eta, pixkanaka, beste diziplina batzuekin jolasteko interesa piztu zitzaion eta horietara hurbiltzen joan zen: dantza, contactimprovisation, antzerkigintza, arte instalatiboa, ikus-entzunezkoa, performancea.

Gaur egun, “artista somatikotzat” jotzen du bere burua, eta inprobisazioan eta denbora errealeko sorkuntzan jartzen du arreta, bai bakarka, bai taldean. Esparru horretako pertsonaiekin prestatu egin da, hala nola Lisa Nelson, Jess Curtis eta Joao Fiadeiro-rekin.

# Xabier Madina

Kolektiboko dantzarietariko bat da, eta Donostiako antzerki konpainia amateur bateko aktorea. Halaber, Kolorearekin Elkarte Artistikoaren sortzaileetako bat izan zen eta egungo presidentea da. Elkarte horrek Donostian aniztasun funtzionala duten eta ez duten pertsonak arteetan sartzea sustatzen du. Testuinguru horretan, Maylis eta Ebirekin topo egin du. Dantzari gisa anbizio profesionaleko dantzaren bere lehen sorkuntza izango da Habrá Que Ponerse Cachas.

# Maylis Arrabit

Dantza bere bizitzaren zati integrala izaten hasi zen, Axis Dance company (Kalifornia, 2011) dantza integratuko konpainiaren udako ikastaro trinkoa egin ondoren. Ezgaitasuna duen dantzaria da, dantza inklusiboaren zalea, eta Stopgap Dance company, Jordi Cortes, Adam Benjamin eta Candoco-rekin ikasi zuen; hainbat proiektutan parte hartu duelarik, 2016. urtean “In (-) Between” izeneko bakar-saioan hasi zen lanean. 2016. urtearen amaieran, “Habrá Que Ponerse Cachas” proiektu koreografikoa sortu zuen.

# Fitxa artistikoa

**“HQPC proiektu kolektiboa”:** Xabier Madina Manterola eta Ebi Soria Corón, Maylis Arrabit
**Zuzendaritza artistikoa:** Maylis Arrabit
**Interpreteak, dantzariak:** Xabier Madina Manterola eta Ebi Soria Corón
**Koreografia:** “HQPC proiektu kolektiboa”
**Produkzioa:** Kolorearekin Elkarte Artistikoa
**Argazkilariak:** Katrin Aldanondo, María Falconer, Gari Garaialde
**Argitzailea, Argiztapenaren diseinua:** Iñaki Iriarte
**Eszenografia:** “HQPC proiektu kolektiboa”
**Jantziak:** “HQPC proiektu kolektiboa”
**Teaser bideoa:** Katrin Aldanondo
**Musika hautaketa:** Maylis Arrabit

# IKUSKIZUNAK: *HURBILTASUNETIK*

## MUR kolektiboaren eskutik



Mugimendu akrobatikoak ikertzeko paraleloan elkartutako bi bizikleta, zerbait modu jakin batean gertatzeko, izateko edo funtzionatzeko, edo beste pertsona batek nahi duen bezala jarduteko pertsona batek duen konfiantza eta itxaropena lantzeko aukera ematen dutenak. Beraz, binomio horren osagaiek elkarren artean fede itsua izan beharko dute bizikletan egoteko.

Teknika handiko bikote poetikoa da, eta ezustean amaituko da, bizikletan. Mota guztietako irudi sinkronikoak, posizio-aldaketa ugari, bi bizikleten eta gorputzen arteko irudiak, bizikleten eta bikotearen arteko oreka-bilaketak adieraziko dira.

# Manolo Osoyo

Cia3 konpainiako, Mur ikuskizuneko artista, eta orekaria bizikleta akrobatikoan. Osoyo geldiezina da, guztia egin dezake. Circ Bombeta barneratzeko zirko-konpainiako kidea da ere, Cowboys ikuskizunarekin.

# David Candelich

Circ Vermut-en osagaia da, txinatar makilan, akrobazian eta objektuen gaineko oreketan espezializatutako zirko-artista. Pineda de Mar-eko Circ Petit eskolan eta Bartzelonako Rogelio Rivel-en trebatua, ikastaro trinkoetan irakasle ezagunekin aritu da. Besteak beste, Festival Circots-en, Reuseko Trapezi-an, Bartzelonako CaixaForumeko Nits de Circ-etan eta Terrassako Fira Modernista-n parte hartu du. Gaur egun, Bartzelonako Rogelio Rivel, Matarόko Cronopis eta Bartzelonako Ateneu de Nou Barris eskoletako irakaslea da.

# Ana Pascual

Rogelio Rivel zirko eskolan hasi zuen zirko-ibilbidea; bertan lurreko akrobazietako, akrobazia bertikaletako, oreka akrobatikoko, tranpolineko, mini-tranpolineko, antzerkiko eta dantzako eskolak jaso zituen. Eskuz esku (bizkorra) espezializatu ondoren, Scuola di circo Flic di Torino-ra aurkeztea erabaki zuen. Han bi urte eman zituen eta mastan espezializatu zen. Bi zirko-eskoletan hautatu zuten Aucheko zirku-jaialdirako ikuskizun bat sortzeko, eta kale-zirkoko hainbat jaialditan parte hartu du, bai Suitzan bai Italian (La Plage de six Pompes, Suitza, eta Novara Arte Festival, Italia). Pianoa eta akordeoia jotzen ditu, eta interpretazio artistiko askotan erabiltzen ditu. Circus Klezmer konpainiako kide ere bada, eta hainbat emanaldi egin ditu eskuz esku bizkorraren eta clown-aren paperean.

# Ostirala, azaroak 5

9:00 - 9:45 h.

## *ARTE PIXKA BAT IV*

Streaming bidezko emanaldia

9:45 - 12:00 h.

## XIII. JARDUNALDIEN JAKINARAZPENAK

8 proiekturen aurkezpena eta ondoren publikoarekin eztabaida
Aurkezlea y moderatzailea: Irene Pardo (Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sarea)
Azkuna Zentroa Auditorioa – Bilboko Alondegia
Streaming bidezko emanaldia

### Zerutik eroriak (Caídos del Cielo)

(Madril) / **caidosdelcielo.org**

### Dantzan kapazitismoa deseraikitzen (Deconstruyendo el capacitismo en la danza)

José Ramón Marcos Martínez doktorea (Paris) / **marcosmartinezjose.wixsite.com/castellano**

### Hutsik. Antzerkigintza lantegi barneratzailea (En blanco. Taller inclusivo de teatro)

CRIS Ciudad Jardín. Buru-eritasuna duten pertsonak birgaitu eta gizarteratzeko eguneko zentroa (Alacant) / IG: **@criscdciudadjardin**

### Gazteak ekintzan (Jóvenes en Acción)

Museo-eskola (La escuela museo). 5s konpainia eta beste batzuk (Galizia) / **artespolaintegracion.com**

### Hiri ikusezinak (Las Ciudades Invisibles)

Sorkuntza-prozesua elementu eraldatzaile gisa. Sinia lanerako ikastegia (Katalunia) / **cosinia.cat**

### Arnasa hartuz, aniztasunarekin eta aniztasunik gabe, denok behar baitugu arnasa

ORGANIK Dantza-Antzerki (Euskadi) / **organikdantza.com**

### Sexberdinak

Tanttaka Teatroa (Euskadi) / **tanttaka.com**

### Zirko eta Asto Tour ibilaldia. Oinez zirkuarekin eta astoekin

Azirkarte Gizarteratzeko Elkartea (Euskadi) / **azirkarte.org**

12:30 - 12:40 h.

## *ARTE PIXKA BAT V*

Streaming bidezko emanaldia

12:45 - 14:15 h.

## TXOSTENA:
## *ULTRAPERIFERIATIK ZENTRORANTZ (DE LA ULTRAPERIFERIA HACIA EL CENTRO) - DANÇANDO COM A DIFERENÇA EM MOVIMENTO*

**HENRIQUE AMOEDO. Dançando com a diferença-ko zuzendari artistikoa**

Aurkezlea y moderatzailea: Jaime Guerra (Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala)

Azkuna Zentroa Auditorioa - Bilboko Alondegia

Streaming bidezko emanaldia

Hitzaldia eta ondorengo eztabaida jendearekin

## Henrique Amoedo

Henrique Amoedok “Diferentziarekin dantzan” (Danzando con la Diferencia) sortu zuen eta zuzendari artistikoa da 2001etik. Giza Motrizitatearen Doktoretzako ikaslea da, Lisboako Giza Motrizitatearen Fakultateko dantzaren espezialitatean. Han ere Performanceko maisutza osatu zuen.

Brasilen Gorputz Hezkuntzan lizentziatu zen eta Gorputz Kontzientzian espezialista da. Roda Viva dantza konpainia sortu zuen eta 1999 arte zuzendu zuen (Natal-RN). Dantza barneratzailearen kontzeptua sortu zuen (2002) eta zuzendu zituen konpainietako hainbat koreografo aritu dira harekin, besteak beste, Henrique Rodovalho, Ivonice Satie, Luis Arrieta, Edson Claro, Domingos Montagner, La Ribot, Paulo Ribeiro, Clara Andermatt, Rui Horta, Rui Lopes Graça, Tânia Carvalho eta Vera Mantero, besteak beste.

## ULTRAPERIFERIATIK ZENTRORANTZ – DANÇANDO COM A DIFERENÇA EM MOVIMIENTO

Performance artistikoari eta haren garapen-espazioei buruz pentsatzen dugunean, normalean, pertsona-jario handia duten eta ideien aurkikuntza eta azterketa erregularragoa duten lekuekin lotzen ditugu. Irudimen kultural, sozial eta politikoa dela eta, kultura zentroen eta sormen espazioen irudiak berehala Europako hiriburu handiekin edo politika artistiko eta kulturaletan inbertitzen duten hiriekin lotzen ditugu, hiri horiek espazio publikoan garrantzi jakin bat baitute.

Arauak eta ereduak apurtzeko ezarri ziren, eta halaxe gertatu zen Madeira uharte ultraperiferikoan duela hogei urte. 2001eko irailean, uharte hartan, proiektu pilotua agertu zen, gaur egun Companhia Dançando com a Diferença (Diferentziarekin dantzan konpainia) deritzona sortu zuena. Dantza barneratzailearen kontzeptuan oinarritutako lan-praktika eta -filosofia guztiak biltzen ditu horrek.

Taldea ezgaitasuna duten eta ez duten pertsonek osatzen dute, eta gaur egungo dantza-koreografo garrantzitsuenetako batzuen lanak interpretatu ditu. Besteak beste, Rui Horta, Clara Andermatt, Henrique Rodovalho, La Ribot eta Vera Mantero nabarmendu ditzakegu.

Konpainiaren errepertorioa eratzeko faseetan zehar Madeira uharteko ikusleak dantzara hurbildu ziren, eta, ondoren, ultraperiferian egoteak dituen murriztapenak saihestu egin zituen; izan ere, konpainia hainbat herrialde eta kontinentetan hirurogei hiritara baino gehiagotara joan zen. Lan honetan, Companhia Dançando com a Diferença taldearen errepertorioa nola eratu zen ikus dezakegu, eta hasiera batean “alternatibotzat” definitu zen lana “Mainstream”-era hurbiltzeko bilakaera.

14:15 - 14:25 h.

## ARTE PIXKA BAT VI

Streaming bidezko emanaldiaing

14:15 - 14:25 h.

## XIII. JARDUNALDIEN JAKINARAZPENAK

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao
Streaming bidezko emanaldiaing

# ANTOLAKETA

**Jaime Guerra**
**Isabel Pascual**
**Silvia Martínez**
**Israel Ballano**
Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala (INAEM)
Kultura eta Kirol Ministerioa

**Fernando Pérez**
**Bárbara Epalza**
**Rakel Esparza**
**Itziar Ijalba**
**Iván Alonso**
**Marina Urrutikoetxea**
Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao

**Isabel Pérez**
Andaluziako Kultura Instituzioen Agentzia
Andaluziako Juntaren

**María Sánchez**
**Marta Monfort**
**Irene Pardo**
Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sarea

**Juan Pablo Soler**
**Catalina Martínez**
Murtziako Zirku Antzokia / Romea Antzokia
Murtziako Udala

# EDUKIEN DISEINUA ETA PRODUKZIOA

**Eva García**
Arte-zuzendaria

**Almudena Heredero**
Produkzio-koordinatzailea

**Aída Ruano**
Kontalaria, memoriaren editorea eta sare sozialak

**Alicia Blanco**
**Irina Ostojic**
**Amaia Muñozguren**
Ekoizpena (Ulalume)

**Telesonic**
Grabazioa, errealizazioa eta streaming-a

**Artworks Comunicación**
Diseinu grafikoa

**Ikuskizunak**
Begizta magnetikoa, audiodeskribapena, gaintituluak eta zeinu hizkuntzarako itzulpena izanen dira, ikuskizun motaren arabera.

**Arte pixka bat**
Begizta magnetikoa, audiodeskribapena, azpitituluak eta zeinu hizkuntzarako itzulpena izanen dira.

**Txostenak eta elkarrizketak**
Azpitituluak eta zeinu hizkuntzarako itzulpena izanen dira.